

## **JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIA. IRAKURKETA ERRAZA-IRAKURKETA ESKURAGARRIA TXOKOAK**

### **Zergatik da beharrezkoa irakurketa erraza?**

Jasangarritasun soziala lortzeko funtsezko elementuetako bat — 10 GJHetan islatuta dagoena— , zalantzarik gabe, informazioa eskuratzeko bidea demokratizatzea da.

Pertsona guztien artean benetako aukera-berdintasuna lortzeko, eta pertsona horiek kultura, literatura eta informazioa eskuratu ahal dezaten, pertsona guztiek beren eskubideak maila berean baliatzea eragozten duten oztopoak kendu behar dira.

Informazioan eta ezagutzan oinarritutako gizarte batean, pertsona asko baztertuta geratzen dira irakurtzeko zailtasunagatik; pertsona horiek ezin dute irakurketa komunikatzeko, informatzeko, prestatzeko edo aisialdirako bitarteko gisa erabili.

Irakurketa errazak soluzioak eman nahi ditu egoera hori hobetzen laguntzeko. Irakurle berriak sortzen, irakurzaletasuna berreskuratzen eta irakurketa-maila hobetzen laguntzen du.

*Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza* elkartearen datuen arabera, herritarren % 30ek zailtasunak dituzte normaltasunez irakurtzeko.

### **Zer da irakurketa erraza?**

Irakurketa Errazak bi printzipio ditu oinarri: irakurketaren demokrazia eta kolektibo jakin batzuen gizarteratzea, irakurketaren bidez. Haren xedea da irakurketa hurbiltzea irakurtzeko edo ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonengana.

Irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonen artean bi kolektibo mota ditugu:

1. Irakurtzeko zailtasun iragankorrak dituzten pertsonak: immigrazioa, irakurtzen berandu hasi izana, eskolatze eskasa, ikaskuntza-nahasmenduak...
2. Irakurtzeko zailtasun iraunkorrak dituzten pertsonak: adimen-desgaitasuna, zahartzaroa...

# Irakurketa erraza

Onura jasotzen duten pertsonak

Adimen-desgaitasuna duten pertsonak



Hizkuntza ez dakiten immigranteak

Pertsona analfabeto funtzionalak



Neska-mutikoak

Dislexia duten pertsonak



Pertsona nagusiak

Jardueraren eta arretaren nahasmenduak dituzten pertsonak

Autistak



Pertsona gorrak hitz egiten hasi aurretik

Pertsona gor-itsuak

Afasia duten pertsonak



Iturria: Associació lectura fácil

labrema.org

Irakurketa Errazeko (IE) materialak zera dira: irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsonak irakurtzeko eta ulertzeko arreta bereziz prestatutako liburuak, dokumentuak, webguneak eta halakoak.

IFLA erakundeak (Liburutegien Elkarte eta Erakundeen Nazioarteko Federazioa) emandako jarraibideak betetzen dituzte, edukiari, hizkuntzari eta formari dagokienez.